



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko otsailaren 27a

16. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru lege proiektua, 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, errehabilitazio psikosozialeko zentroetako langileak kaleratzeari eta itunak ez betetzeari buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egin (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mobbingari buruzko plan bat egin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko istripuei aurre egiteko plan estrategikoa egin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da 18/98 sumarioa epaiketa politikoa dela azpimarra dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun zentro eta kontsultategietako gabetasunei presako erantzuna eman diezaien. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan administrazio publikoek Ekonomia Solidarioaren Nafarroako Sarean parte har dezaten. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, Tindufeko kanpaleku sahararretako larrialdi egoerari buruzkoa. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-135 errepidea hobetzera, eta Erron, Mezkitzen eta Luzaiden tunelak egitera. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Foru Komunitatean maniobra militarrek egiteari utz diezaion. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak defenditu eta bere egiten ditu Nafarroako Fusilatuen Senideen Elkarrekin oroimenerako eginiko eskakizunak. Erretiratutako mozioa (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Los Abetos izeneko bidegurutzea, N-121 errepidean baitago, hobe dezan. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak bazter utzia (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kamioiei ez diezaien N-121-A errepidea erabiltzen utzi, harik eta obrak bukatu arte. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak bazter utzia (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua premiatzen da ikas-bonoa abian jar dezan. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak bazter utzia (12. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, gizarte bazterkeriaren aurkako planari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egin (13. or.).
- Galdera, Sanyok Tuteran duen lantegiarendako laguntzen programei buruzkoa, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egin (14. or.).
- Galdera, terrorismoaren amaiera ezartzeko proposamen politikoei buruzkoa, foru parlamentari Félix M.^a Taberna Monzón jaunak egin (14. or.).
- Galdera, Doneztebe-Saldias NA-4040 errepidearen aurrekontu-betetzeari buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak egin (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Jauregiko eta Baluarteko errotulazioa dela-eta onetsitako erabakiak betetzeari buruzkoa, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egin (15. or.).
- Galdera, eremu mistoan ele bitan errotulazera premiatzen duen Arartekoaren gomendioari buruzkoa, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egin (16. or.).
- Galdera, erizaintzako lanbide karrerari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (16. or.).
- Galdera, funtzionarioendako osasun arloko laguntzako aurrekontu kontusailari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (17. or.).
- Galdera, errehabilitazio psikosozialeko zentroak irekitzeari buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egin (18. or.).
- Galdera, Álvaro de Marichalar jaunari Txinara eta Japoniara joateko laguntza ekonomikoa emateari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egin (18. or.).
- Galdera, gaixoak osasun sistema pribatura bideratzeak osasun sistema publikoari dakarkion kostu ekonomikoari buruzkoa, foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak egin (19. or.).
- Galdera, suhiltzaileen kidegoaren ikastaroei, eginkizunei eta lansariak parekatzeari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egin (20. or.).
- Galdera, Suhiltzaileen Partzuergoko langileen lansariei buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egin (20. or.).
- Galdera, herritarrentzako laguntza bulegoak irekitzeari buruzkoa, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egin (21. or.).
- Galdera, Sarrigurenen osasun etxe bat eraikitzeari buruzkoa. Erretiratutako galdera (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak eta Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak 2006-2008 eperako toki azpiegituren plan bereziari buruz Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Toki Administrazioiko Batzordera igorri da.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2006ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, errehabilitazio psikosozialeko zentroetako langileak kaleratzeari eta itunak ez betetzeari buruzkoa.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak errehabilitazio psikosozialeko zentroetako langileak kaleratzeari eta itunak ez betetzeari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Legebiltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

JABELDURAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduko 180. artikulua ezarritakoari jarraikiz, jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuo Gizarte Ongizateko kontseilari Palacios jaunari, eta tramitatzeko onar dezala eskatzen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari.

Aralar parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuo Gizarte Ongizateko kontseilariari eginiko jabeldura, errehabilitazio psikosozialeko zentroetako langileak kaleratzeari eta ituna ez betetzeari buruz.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eskatzen diot jabeldura hau aurkeztutzat jo eta behar bezala tramita dezan.

Iruñean, 2006ko otsailaren 14an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da *mobbingari* buruzko plan bat egin dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da *mobbingari* buruzko plan bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara

dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Berriki argitaraturiko datuen arabera, Nafarroako biztanleria aktiboaren % 7,9 eta 9,5 bitartek laneko jazarpena edo *mobbinga* pairatzen du.

Datu horiek direla eta, laneko jazarpena kontsulta medikoetako arrazoi nagusietako bat da. Laneko jazarpenak andeatze psikologiko progresibo eta geldoa eragiten die hura pairatzen duten biktimei.

Gizarte zuzen eta demokratiko batean, ezin da indarkeria zantzu txikiena ere onartu, edozein dela

ere haren jatorria edo arrazoia eta, horrenbestez, laneko jazarpen morala saihestea guztion erantzukizuna da.

Horiek horrela, mozio hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arlo horretan adituak diren elkarte eta erakundeekin batera *mobbingaren* aurkako Nafarroako plan bat egin dezan ahal den epe laburrean.

Plan horretan, neurrien multzo bat proposatu behar da, modu integralean borroka egiteko gure gizarteko gaitz larri hori desagerrarazteko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko istripuei aurre egiteko plan estrategikoa egin dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko istripuei aurre egiteko plan estrategikoa egin dezan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak argitara emandako datuen arabera, Nafarroako Foru

Komunitatean 2005ean laneko 30 heriotza istripu gertatu ziren; beraz, % 58 igo dira istripuak 2004ko datuekin alderatuta. Joan den urtean hil ziren 30 langileetatik, 14 beren ohiko lantokian hil ziren.

Etiketiko ohiko lantokira joaten bidean gertaturiko istripuek ere gora egin dute: 16 baino gehiago izan dira, 2002tik urtero 11 izan diren bitartean.

Egia bada ere laneko istripuek, oro har, mila langileko ehuneko 2,8 egin dutela behera, batez ere istripu gehien gertatzen diren sektoreetan –esate baterako eraikuntzan edo garraioan edo langile autonomoen artean, zeinak ez baitira sartzen lan istripuei buruzko estatistika datu gehienetan– gaur egun lanaren merkatuak duen osaketa dela eta ahalegin handiagoak egin beharrean gaude.

Horiek horrela, mozio hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du besteren konturako langileen eta langile autonomoen elkarteekin, enpresaburu-ekin, eragile sozialekin eta arlo horretan adituak diren erakundeekin batera lan egin dezan, ahal den epe laburrean lan istripuen aurkako plan estrategikoa egin egiteko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da 18/98 sumarioa epaiketa politikoa dela azpimarra dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Parlamentua premiatzen da 18/98 sumarioa epaiketa politikoa dela azpimarra dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar talde parlamentarioak, Nafarroako Mahaiaren aitzinean, Ganbarako Erregelamenduko 192. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, ondoko mozioa aurkezten du osoko bilkuran.

Justifikazioa

18/98 sumarioaren epaiketak aurrera darrai. Bere oinarrian duen tesi bakarra zera da, erabat zilegiak diren jarduera politiko eta sozialak, ideologikoki ETArekin zenbait postuladurekin bat egiten dutenaren argudiopean, erakunde armatuaren konplize, laguntzaile edo kide izatearekin parekatzea. Tesiaren zentzugabekeria nabarmenak agerian uzten du estrategia politiko jakin baten esanetara hartutako neurriak direla. Estrategia horren bidez, gure herriko esparru sozial eta politiko zabal bat espainiar legeriatik kanpo utzi nahi da eta Euskal Herriak nazio gisara aurrera egin dezan hainbat esparrutatik egiten den lan antolatua oztopatu. Horretarako, hainbat herritar eta talderen askatasun zibil eta politikoak urratu dira: adierazpen askatasuna, biltzeko eta elkartzeko eskubideak, askatasun ideologikoa edota disidentziarako eskubidea.

Talante berriaz eta bake prozesuaren atariaz larregi hitz egiten den momentu politiko honetan, sumario horrek atzeragoko denborak ekartzen dizkigu gogora. Are gehiago, sumario hau azken

hamarkadetako barrabaskeria juridikorik handiena da 59 auziperatu eta mila urteko kartzela eskaerarekin. Euskal Herriak erreakzionatu beharra du, ezin da isilik geratu.

Gainera, Euskal Herriak behar duen bake prozesua abian jartzeko oztopo da eta, neurri horretan, Espainiako Gobernuak aukera ezin hobea du prozesu horrekiko bere konpromisoa eta borondatea erakusteko.

Egoera honetan, ondorengo proposamena aurkezten dugu Nafarroako Parlamentuan, giza eskubideen urraketak gainditu behar direla eta Euskal Herriak behar duen bake prozesuan alde guztiek urratsak eman behar dituztela defendatzen duten guztien babesarekin onartuko den esperantzaz:

Akordio proposamena

1.- Nafarroako Parlamentuak 18/98 sumarioa dela eta Entzutegi Nazionalean hasi den epaiketa politikoa dela azpimarratu nahi du. Abiapuntu politiko eta antidemokratikoa duen epaiketa da. Ideien kontrako prozedura baten aurrean gaude.

2.- Pertsona eta taldeen askatasun zibil eta politikoak, adierazpen askatasuna, biltzeko eta elkartzeko eskubideak, askatasun ideologikoa eta disidentziarako eskubidea ukatzen dituen prozesua da.

3.- Epaiketa hori kaltegarria da bizi dugun une politikoan aurrera egin ahal izateko. Kaltegarria da konponbiderako.

4.- Estatu Espainiarreko Gobernuari eskatzen diogu, instrukzioak eman diezazkiola Fiskaltza Nagusiari akusazio publikoa bertan behera utz dezan.

5.- Makrosumario hau urteetan euskal gizartearen kontra egin den bidegabekeria juridiko handiena da. Nafarroako Parlamentuak epaiketa bertan behera uztea eskatzeko eta inputatuei atxikimendu eta babes agertzeko egingo diren mobilizazioetan parte hartzera deitu nahi ditu herritarrak.

6.- Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazi nahi die auzipetutako gizon-emakume, enpresa-elkarte eta senideei.

Iruñean 2006ko otsailaren 14an

Eleduna : Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun zentro eta kontsultategietako gabetasunei presako erantzuna eman diezaien.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun zentro eta kontsultategietako gabetasunei presako erantzuna eman diezaien".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalgo dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta onesteko.

Sozialistok Nafarroako osasun etxe eta kontsultategietara egin ditugun bisitetan, aukera izan dugu gabetasun eta eskasia handiak daudela egiaztatzeko.

Gabetasunen oinarria da azpiegiturak eta giza baliabideak ez direla egokiak egungo beharretarako. Populazioaren handitzea, zahartzea eta, horrenbestez, gaixotasunen kronifikatzea osasun plangintza egokiaren aurretik joan dira.

Kontsultategi asko orain dela 20 urte baino gehiago eraiki ziren, eta argi dago baldintzak eta beharrak nabarmen aldatu direla ordutik hona. Materialak –paretak, arotzeria eta alikatatuak, besteak beste– hondatuta daude.

Gehienetan ez dago berokuntzarik ez eta aire giroturik, eta horrek egonaldia eta osasun laguntza egokia zailtzen ditu.

Metro koadro bakoitzeko biztanleei buruzko gomendioak ez dira bete, eta leku falta guzti-guztietan dagoen arazoa da.

Ezaugarri orokor horietaz gainera, beste ezaugarri berezi batzuk ere badaude osasun etxe batzuetan; horiek direla eta, Arrada, Tulebras, Abartzuza, Barbarin eta Iguzkitza herrietan, esate baterako, ez dago ezta konketarik ere.

Gabetasun eta eskasia horiei berehala eman behar zaie konponbidea; udal horietako askok behin baino gehiagotan laguntzak eskatu izan dizkiote Osasun Departamentuari eta beti ezezkoa eman zaie.

Bizi baldintza egokiak dituen Nafarroa batean, ezin zaio errealitate horri denbora gehiagoz eutsi, eta presakoa da antzemandako gabetasun horiei guztiei aurre egitea.

Argi dago 2006rako Nafarroako aurrekontuetan xede horietarako jarritako dirua ez dela nahikoa.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du presako erantzuna eman dakiene osasun etxe eta kontsultategi medikoetan dauden osasun gabetasun eta eskasiei, eta foru erkidegoko udalek eginiko eskariak onar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du diru nahikoa biltzen duen aparteko kreditu bat eman dezan herrietako osasun etxe eta kontsultategietan obrak egiteko kontusaila handitzeko.

Iruñean, 2006ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan administrazio publikoek Ekonomia Solidarioaren Nafarroako Sarean parte har dezaten.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan administrazio publikoek Ekonomia Solidarioaren Nafarroako Sarean parte har dezaten".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Gero eta pertsona gehiagok, Nafarroan eta herrialde guztietan, sentitzen dute globalizazio ekonomikoaren planteamenduak ez dituela asetzen populazio talde zabal baten premia erreala; izan ere, ongizate gero eta handiagoa izan beharrean, gero eta baliabide eta aukera gutxiago daukate miseria eta pobrezia egoeratik ateraraziko dien inongo jardueratan hasteko.

Gaur egun, gizateriak funtsezko erronka batzuei egin behar die aurre: tokiko ekonomien eta ekonomia nazionalen andeatzea, nazioez gaindiko finantza-talde handien mesedetan –hartara, kapitalari lehentasuna eman eta lanari kalte egiten zaio, merkatuak arauz gabetuz–; gero eta langabezia handiagoa, lan baldintzen hondatzea, gizarte lehia bidegabea, lanaren deslokalizazioa...; kontinenteen artean eta herrialde barruan ere aberastasunen banaketa gero eta ekitate gutxiagoz egiten da, bazterkeria dago, isolamendua,

bortxakeria...; etorkizuneko ikuspeirik ez dago, kontsumismoaren ameskeria, indibidualismoa, idealen galera...; ingurumenaren hondatze gero eta handiagoa, hondakinen metaketa, desertizazioa, biodibertsitatearen gutxitzea, berotegi efektua...

Modu indibidual nahiz kolektiboan eta jardunbide elkartasunezko, parte-hartzaile, humanista eta irabazi asmorik gabekoen bitartez garaturiko sistema sozio-ekonomiko, kultural eta ingurumenekoari esaten zaio elkartasunezko ekonomia; sistema horrek gizakiaren garapen integrala jartzen du ekonomiaren xedetzat. Jarduera ekonomiko alderti etiko eta gizatiarra berreskuratu nahi ditu eta eredu ekonomiko alternatiboak praktikan jartzeko printzipio berriak ezarri.

Haren tresnek eta metodoek aukera ematen dute pertsonak eta taldeak enpresan eta kapitalean sar daitezen, zabalagoa eginez, horrela, ekoizleek eta kontsumitzaileek daukaten kontrola lanaren edukiari buruz, gizarteko erabilgarritasunari buruz, produktuen balioari buruz eta teknologiei buruz daukaten kontrola zabalduz; ahaleginak egiten dituzte berdintasuna-ekitate eta erantzukizuna sustatzen, aldeak gutxitzen (sexuen artean, errentetan, kontzepzioaren eta exekuzioaren artean...); herritarrei proposatzen diete fluxuak hobeki menpera ditzaten, erabakien eta diruaren bideak (etekina, inbertsioak, fiskalitatea, aurrezkia) hobeki menpera ditzaten.

Elkartasunezko ekonomiak parte hartzen du bazterkeriaren eta pobrezia-arrazoien aurkako borrokan; iraunen duen garapen bat sustatu nahi du, egungo eta etorkizuneko belaunaldien beharrak intergratuz. Xede du gizaki bakoitzaren zabalpena bultzatzea eta horretarako bidea ematea bakoitzak ahal duen modu onenean oreka dezan, bere bizitzan zehar, prestakuntza, ordainpeko jarduera, boluntario lana eta familia edo bizitza pertsonala. Elkartasunezko ekonomia, gizarte osoarentzat, bide alternatiboa eta etorkizun handikoa da.

Nafarroako Foru Komunitatean, Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak ere bere bidea hasi du elkartasunezko ekonomia-aren arloan Banca Popolare Etica izenekoaren agente gisa; entitate italiar hori 1995ean sortu

zen, eta banka etikoaren arloko Europako erreferentea izatera iritsi da.

Nafarroako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak elkartasunaren arloan beren eraginkortasuna erakutsi duten elkarte batzuek osatzen dute; besteak beste, Proclade, Gaztelan, Secretariado Gitano, Setem, Traperos de Emaus edo Comunidad de Base Oteiza.

Nafarroako Parlamentuak erakunde horien lana aitortu behar du, eredugarriak direlako eta lotura estua dutelako gizarteko sentsibiltate batekin, eta gizarteratzearen arloko enpresa horiei

babesa eman behar die. Horregatik aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du neurri juridikoak, finantzarioak eta antolamenduzkoak har ditzan Nafarroako Ekonomia Solidarioaren Sareak administrazio publikoetan parte har dezan, eta babesa eman dakien banka etikoaren abantaileri buruz kontsumitzaileei informazioa ematen dieten erakunde horiek garrantzen dituzten jarduera batzuei.

Iruñean, 2006ko otsailaren 15ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Adierazpen instituzionala, Tindufeko kanpaleku sahararretako larrialdi egoerari buruzkoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, ondoko adierazpen instituzionala onetsi zuen:

“Argeliako Tinduf eskualdeko errefuxiatuen kanpalekuetan otsailaren 9tik, osteguna, otsailaren 11ra, larunbata, etengabeko eurite tropikalak bota zituen eta uholdeak gertatu ziren; horrek galera material handiak ekarri eta errefuxiatuen artean zaurituak ere eragin zituen.

Saharako Ilargierdi Gorriko ekipoen lehen estimazioen arabera, gutxienez ere 12.000 familia babesik gabe geratu ziren, zeren eta uholdeek zeuzkaten ondasun eta elikagai apurrak eraman baitzituzten. Gainera, kalteak izan dira lehen mailako garrantzia duten gobernuaren establezimendu eta erakundeetan; besteak beste, eskoletan eta ospitaleetan.

Egoera kezkagarri horren aurrean, Nafarroako Parlamentuak:

Babesa eta elkartasuna erakusten die uholdeen ondorioak pairatu dituzten saharar guztiei; uholde horiek Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetako wilaya eta dairak kaltetu dituzte.

Gobernuak eta erakundeak premiatzen ditu lehenetsuna eman diezaioten sahararren kanpalekuetarako larrialdiko laguntzari; funtsezkoa da egoera horiek ekartzen duten epidemia arriskua arintzeko laguntza.

Nazioarteko erakundeak premiatzen ditu aktiboki inplikatu daitezkeen sahararren errefuxiatuen kanpalekuetara larrialdiko laguntza bidal dezaten, eskualde hartan giza hondamendi handiagoak saihesteko.

Berriz ere gogoratzen du nazioarteko erakundeetatik jasotako laguntzek behera egin dutela, eta salatzen ditu erabaki horren ondorioz gertatzen diren gabezia egoerak.

Beste behin adierazten du sahararren herriak erabakitzeko prozesu baterako eskubidea duela, autodeterminaziorako eta eskubidean eta erabakitzeko gaitasunean oinarritua, hartara amaiera emateko oraindik ere konpondu gabe dagoen kolonizazio prozesu batean jatorria duen gatazkari”.

Iruñean, 2006ko ekainaren 20an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-135 errepidea hobetzera, eta Erron, Mezkitzen eta Luzaiden tunelak egitera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da N-135 errepidea hobetzera, eta Erron, Mezkitzen eta Luzaiden tunelak egitera".

Legebiltzarrak 2006ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2005eko urriaren 31ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Foru Komunitatean maniobra militarrek egiteari utz diezaion.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Estatuko Gobernua premiatzen da Foru Komunitatean maniobra militarrek egiteari utz diezaion".

Legebiltzarrak 2006ko otsailaren 16an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak defenditu eta bere egiten ditu Nafarroako Fusilatuen Senideen Elkarteak oroimenerako eginiko eskakizunak.

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Aralar, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Socialistas del Parlamento de Navarra, Eusko Alkartasuna, Nafarroako Demokraten Elkargunea eta Askotarikoa parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Nafarroako Parlamentuak defenditu eta bere egiten ditu Nafarroako

Fusilatuen Senideen Elkarteak oroimenerako eginiko eskakizunak".

1. Aipatutako mozioa erretiratu izanaren jakitun dagoela adieraztea. Galdera hori 2005eko abenduaren 19ko 131. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Los Abetos izeneko bidegurutzea, N-121 errepidean baitago, hobe dezan.

HERRILAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Los Abetos izeneko bidegurutzea, N-121 errepidean baitago, hobe dezan".

Legebiltzarreko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak, 2006ko otsailaren 21ean egin-

dako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko urtarrilaren 4ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kamioiei ez diezaien N-121-A errepidea erabiltzen utzi, harik eta obrak bukatu arte.

HERRILAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da kamioiei ez diezaien N-121-A errepidea erabiltzen utzi, harik eta obrak bukatu arte".

Legebiltzarreko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak, 2006ko otsailaren 21ean egin-

dako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua premiatzen da ikas-bonoa abian jar dezan.

HERRILAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentua premiatzen da ikas-bonoa abian jar dezan".

Legebiltzarreko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Batzordeak, 2006ko otsailaren 21ean egin-

dako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko otsailaren 6ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, gizarte bazterkeriaren aurkako planari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea gizarte bazterkeriaren aurkako planari buruz foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Gizarte Ongizateko kontseilariari, ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran.

Gizarte Ongizateko Departamentuaren 2005. urterako helburuen artean, Oinarrizko Laguntza-
ren eta Gizarteratzearen Zuzendariordeztari dago-
kionez, honakoak zeuden:

– Gizarte bazterkeriaren aurkako 1998-2005 urteetarako planean sartzen diren programen ebaluazioa egitea.

– Nafarroan gizarte bazterkeriaren aurkako plan berria egin dadin bultzatzea.

Helburu horiek, gaur den egunean, ez dira bete. Halere, askoz ere larriagoa da gizarte bazterkeriaren aurkako lehen planaren balantze tristetia izatea ez direla bete bertan jasotako proposamen ia guztiak.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zein fasetan dago gizarte bazterkeriaren aurkako bigarren planaren erredakzioa?

2.- Berma al dezake Nafarroako Gobernuak departamentuen arteko koordinazioa gizarte bazterkeriaren aurkako plan berrian? Nola egingen dute?

3.- Berma al dezake Nafarroako Gobernuak pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren aurkako borroka gure erkidegoko politikako publikoaren erdigunean egonen dela, sareak eskatzen duen bezala?

Iruñean, 2006ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Sanyok Tuteran duen lantegiarendako laguntzen programei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SÁIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Sanyok Tuteran duen lantegiarendako laguntzen programei buruz foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma

Saizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Tuterako Sanyo enpresak iragarria du heldu den hilean ekoizpena geratuko duela eta jarduerari utziko diola, eta balitekeela 170 langilerengan eragina izan den enplegu-erregulazioko espediente irekitzea.

– Zein dira eta zenbat egiten dute azken urteetan Nafarroako Gobernuaren laguntza programei Sanyo multinazional japoniarrak hartu dituen onurak Tuteran duen lantegirako?

Iruñean, 2006ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, terrorismoaren amaiera ezartzeko proposamen politikoei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M.ª TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea terrorismoaren amaiera ezartzeko proposamen politikoei buruz foru parlamentari Félix M.ª Taberna Monzón jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko eledun Felix Tabernak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Hiru urte baino gehiago dira Espainian ETAK ez duela inor hil. Halaber, ETAK adierazia du ez

duela kargu publikoen kontrako atentaturik egingen. Datu horiek eduki arren, ETAK bere jardura makabroan jarraitzen du. Hala eta guztiz ere, zantzu batzuk badaude adierazten dutenak badaitekeela terrorismo horri amaiera ematearren elkarriketari hasiera emateko moduko albisteak egonen direla. Espainiako Gobernuako lehendakariak berak horixe egiaztatu du. Egokia litzateke Diputatuen Kongresuak inguruabar honetarako onetsi zuen ebazpenari berriz indarra ematea. Elkarrizketa aipatzen du ebazpenak.

Zalantzarik gabe Nafarroako Gobernuako lehendakariak bakea nahi du, eta aurrera egin nahi du gure lurraldeko normalizazio politiko eta sozialean.

Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

– Zein proposamen politiko egingen ditu lehendakariak terrorismoaren amaiera ezartzen laguntzeko? Ba al du errepede mapa propiorik ala PPre-nari jarraitzen dio?

Iruñean, 2006ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Galdera, Doneztebe-Saldias NA-4040 errepedearen aurrekontu-betetzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Doneztebe-Saldias NA-4040 errepedearen aurrekontu-betetzeari buruz foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu dio Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilari Alvaro Miranda jaunari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Bete al da 2002-2009 urteetarako bigarren errepede plan zuzendariko 85. jarduera, alegia, Doneztebe-Saldias NA-4040 errepedea zabaldu eta hobetzea, plan horretan ezarritako moduan?

Jarduera hori bete ez bada, zergatik ez da bete eta noiz beteko da?

Iruñean, 2006ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, Nafarroako Jauregiko eta Baluarteke errotulazioa dela-eta onetsitako erabakiak betetzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Nafarroako Jauregiko eta Baluarteke errotulazioa dela-eta onetsitako erabakiak betetzeari buruz foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako ahoz erantzuteko Parlamenturen osoko bilkuran.

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordeak, 2005eko apirilaren 13an eginiko bilku-

ran, erabaki bat onetsi zuen, ondokoa zioena hain zuzen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Baluarteke-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioa hartzen duen eraikineko sarrera nagusiko errotuluak euskaraz ere jar ditzan".

Bestalde, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2005eko ekainaren 9an eginiko bilkuran honakoa zioen erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Jauregiko errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan".

Denbora bat iragan den arren eta erabaki horietan premiatzen dena egiteko ia zailtasun teknikorik ez dagoen arren, gaur arte ez da ezer egin.

Horregatik, Nafarroako Gobernuak honako galdera honi erantzun diezaion nahi du:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik betetzeko Parlamentuaren aipatu erabakietan premiaz eskatu zitzaiona?

Iruñean, 2006ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, eremu mistoan ele bitan errotulatzera premiatzen duen Arartekoaren gomendioari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea eremu mistoan ele bitan errotulatzera premiatzen duen Arartekoaren gomendioari buruz foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurak, Legebiltzarreko erregela-

menduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Legebiltzarreko Herrilan Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion.

Arartekoak, gomendio batean, Nafarroako Gobernua premiatu zuen Nafarroako eskualde mistoan errotulu elebidunak jartzeko. Horren aurrean, hona galdera:

Beteko al du Herrilan Departamentuak arartekoak eginiko gomendioa, alegia, bide-errotuluetan Nafarroako eskualde mistoko udaletako toponimia elebidun ofiziala errespetatuko al du?

Iruñean, 2006ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, erizaintzako lanbide karrerari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, erizaintzako lanbide karrerari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Osasun zerbitzuetako langileen estatutu marka onesten duen legeak lanbide karrera aurreratu du autonomia erkidegoetako osasun zerbitzu guztietarako.

Bestalde, Osasun-lanbideen antolamenduari buruzko legeak gehieneko epe bat ezarri zuen, 2007ko azarora bitartekoa, autonomia erkidego guztietako osasun-lanbideetarako lanbide-karrera onesteko.

Erizainen elkargoak, erizainen sindikatuak eta UGT, CCOO eta negozioz mahaiari ordezkaritza duten gainerako sindikatuak erizainen lanbide-karrera arautzeko eskatu diote administrazioari. Nolanahi ere, elkargoko lehendakariak idazki batean adierazi zuen ez zuela egoera horri buruzko berririk eta ez zekiela zein den Nafarroako Gobernuak horri buruz daukan jarrera, UPNk eta CDNk sinaturiko hitzarmenean jasotako alderdietako bat izanik ere.

Une honetan, honakoak dira erizainen lanbide-karrera araututa duten autonomia erkidegoak: Katalunia, Extremadura, Kanariar Uharteak, Madril eta Valentzia. Ondokoetan, berriz, negozioz ari dira: Andaluzia, Aragoi, Balear Uharteak, Kantabria, Gaztela Mantxa, Galizia eta Euskal Autonomia Erkidegoa.

Kontuan hartuta legeak araupetze horretarako aurreikusi zuen gehieneko epea (2007ko azaroa) eta 2006rako Osasun Departamentuak ez duela ezer aurreikusi, hona galderak:

1.- Aurreikusia al du Osasun Departamentuak erizainen lanbide-karrera arautzea? Baiezkoan, araupetze horren epeak, helburuak eta eskema nahi ditugu.

2.- Zer urrats egin dira hura gauzatzeko?

3.- Xede horretarako, zein hartu-eman dituzte sindikatuekin eta zein jakinarazpen bidali zaizkie?

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, funtzionarioendako osasun arloko laguntzako aurrekontu kontusailari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, funtzionarioendako osasun arloko laguntzako aurrekontu kontusailari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurra Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Legebiltzarreko Erregelamendu-

an ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Administrazio publikoetako funtzionarioen osasun laguntzaren zerbitzurako prestazioei dagokienez, honakoak jakin nahi ditugu:

1.- Zein dira 2004. eta 2005. aurrekontu ekitaldietan aurreikusi diren kontusaila eta diru kopurua?

2.- Zenbateko kopurua bete da 2004an eta 2005ean?

3.- Zein dira 2006. aurrekontu ekitaldirako aurreikusi diren kontusaila eta diru kopurua?

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, errehabilitazio psikosozialeko zentroak irekitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, errehabilitazio psikosozialeko zentroak irekitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Errehabilitazio psikosozialeko zentroak irekitzeari dagokionez, eta jakin dugunez haietan guztietan langileak kaleratu direla, honako galderei erantzutea nahi dugu:

1.- Zein dira errehabilitazioko plazak eta eguneko zentrokoak errehabilitazio psikosozialeko zentro bakoitzean?

2.- Zein da hilabete eta erabiltzaile bakoitzeko prezioa errehabilitazio psikosozialeko zentro bakoitzeko eguneko zentroan?

3.- Zein da NGOZek enpresari ordaintzen dion zenbatekoa errehabilitazio psikosozialeko erabiltzaile bakoitzeko? Kostua orduka ala egunka kalkulatu dago? Erantzun arrazoitua eman bedi.

4.- Zein da errehabilitazio psikosozialeko zentro bakoitzaren plantilla, haiek kudeatzeko itunean aurreikusita dagoena?

5. Zein langile plantilla -zehaztu profesionalen kalifikazioa- kontratatu zen errehabilitazio psikosozialeko zentro bakoitza irekitzeko eta haietan lan egiteko?

6. Zentro horietako langilerik kaleratu al da? Baiezkoan, honakoak ezagutu nahi ditugu, zentro bakoitzeko: kaleratutako langileen kopurua eta profesional horien kalifikazioa?

Zein izan dira langile horiek kaleratzeko arrazoiak? Justifikatu al dira? Gizarte Ongizate Departamentuaren adostasuna eta onespena izan al da?

Horrek itunaren baldintzak haustea esan nahi ote du?

Zein egoeratan daude errehabilitazio psikosozialeko zentroak kudeatzeko itunak?

Iruñean, 2006ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Álvaro de Marichalar jaunari Txinara eta Japoniara joateko laguntza ekonomikoa emateari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, Álvaro de Marichalar jaunari Txinara eta Japoniara joateko laguntza ekonomikoa emateari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Komunikabideek argitara eman duten albistearen arabera, Álvaro de Marichalarrek asmoa dauka ekialde urrunetik bidaiatzeko, Txinatik Japoniara ur-motorrez joateko, San Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatu nahian.

Dirudenez, Marichalar jauna prest dago gehien gustatzen zaion kirolean aritzeko Frantzisko Jatsu eta Azpilikueta ebanjelizazioan aritu zen eta hil zen lurretatik hurbil, Nafarroako Gobernuaren Kultura eta Turismo Departamentuaren dirulaguntza baten truke.

Álvaro de Marichalarrek komunikabideetan salatu du Nafarroako Gobernuak "ez diola sekula laguntza ekonomikorik eman"; bai, ordea, "laguntza morala".

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

- Zein lan egin du Nafarroako Foru Komunitaterako Álvaro de Marichalar jaunak, gobernuak laguntza ekonomikoa eman behar izateko?

- Prest al dago Kultura eta Turismo Departamentua Álvaro de Marichalar jaunaren kirol zaletasunak babesteko eta diru publikoz finantzatzeko Txina eta Japoniako itsasoetan barna dibertitzen ibil dadin?

- Hala bada, zenbat diru gastatu nahi du Kultura eta Turismo Departamentuak Álvaro de Marichalar jauna zeharkaldi horretan dibertitu dadin?

Iruñean, 2006ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo

Galdera, gaixoak osasun sistema pribatura bideratzeak osasun sistema publikoari dakarkion kostu ekonomikoari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA SANTESTEBAN GUEL BENZU ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak egindako galdera, gaixoak osasun sistema pribatura bideratzeak osasun sistema publikoari dakarkion kostu ekonomikoari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzuko, Legebiltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoaren babesean, ondoko ahozko galdera aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Joan den otsailaren 14an, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilaria Nafarroako Parlamentuan agertu zen, parlamentu-talde honek eskatuta, ospitaleetako kirurgiako itxaron zerrendak eta kontsultetarako eta diagnosi probetarako itxaron zerrendak gutxitzeko plana azaltzeko.

Planteaturiko neurriak gorabehera, gaur egun, oraindik ere gaixoak itundutako zentroetara bidaltzen jarraitzen da. Hain zuzen, urtarriletik 233 gaixo bidali dira.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Zenbateko kostua izan du osasun publikoarentzat 218 gaixo Klinika Unibertsitariora eta 15 gaixo San Juan de Dios Klinikara bidaltzeko?

Iruñean, 2006ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Helena Santesteban Guelbenzu

Galdera, suhiltzaileen kidegoaren ikastaroei, eginkizunei eta lansariak parekatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, suhiltzaileen kidegoaren ikastaroei, eginkizunei eta lansariak parekatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

1. Zenbat ikastaro eman zaie suhiltzaileen kidegoko langileei, zenbat iraun dute eta zenbateko diru kostua izan dute?

2. Zein da suhiltzaileen kidegoko zerbitzu osagarrietako lanpostu ezberdinen eguneko lanaldia, urteko lanaldia eta ordainsariak?

3. Kidegoaren barruan lanpostu bakoitzak dauzkan eginkizunak ezarri al dira, zehazki zerbitzu osagarrietako lanpostu ezberdinek dituztenak?

4. Zergatik ez da osatu antzeko suhiltzaile zerbitzuekiko lansarien parekatzea, gaur egun indarra duten akordioetan sinatu zen bezala.

Iruñean, 2006ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Suhiltzaileen Partzuergoko langileen lansariei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, Suhiltzaileen Partzuergoko langileen lansariei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

1. Suhiltzaileen Partzuergoko langileetatik zenbat dira A mailakoak?

2. Zenbateko soldata kobratu du horietako bakoitzak 2005ean eta zein kontzepturengatik?

3. Horietako bakarren batek % 25eko gainsoldata gainditu al du?, horixe baita 2004ko suhiltzaileekiko akordioan eta 276/2989 Foru Dekretuko 11. artikuluan ezarritako muga.

4. Gainditu badu, zenbatean eta zein kontzepturengatik?

5. Zenbat aparteko ordu ordaindu zaizkie suhiltzaileen kidegoko langileei?

6. Horietatik zenbat dira esku-hartze orduengatik eta zenbat egitura-orduegatik?

7. Zenbat guardia lokalizatu egin dira?

8. Kidegoko zein funtzionarioek egiten dituzte?

9. Zenbat eskola ordu eman dituzte suhiltzaileen partzuergoko langileek funtzionarioentzat edo enpresa publiko nahiz pribatuentzat Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuarekin lankidetzan edo hark antolatuta?

10. Zenbateko ordainsariak eman dira eskola horiengatik? Nominan ala beste kontzepturen batengatik ordaindu dira?

11. Zein funtzionariok eman dituzte eskola ordu horiek?

12. Zein irizpide erabiltzen dira eskola ordu horiek zein funtzionariok emanen dituzten erabakitzeke?

13. Zein langilek hartu du parte oposizio edo lehiaketetan epaimahaikide gisa, edo zein langile egon dira hautaprobak kontrolatzen suhiltzaileak edo foruzainak hartzeko deialdietan?

14. Zein ordainsari jaso dituzte horregatik?

Iruñean, 2006ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, herritarrentzako laguntza bulegoak irekitzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko otsailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak egindako galdera, herritarrentzako laguntza bulegoak irekitzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko otsailaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak Lizarran, Tafallan, Altsasun eta Baztanen Foruzaingoaren herritarrentzako laguntza bulegoak pixkanaka irekitzen hasteari buruz eman dituen datuak ikusita, talde sozialistak honakoen berri jakin nahi du:

1. Zein fasetan daude lokalak egokitzeko lanetako proiektuak, bulegoak zabaldu ahal izateko?

2. Noiz hasiko dira egokitze lan horiek udal horietako bakoitzean?

3. Zer diru daude aurrekontuetan giza eta gauza baliabideetarako?

4. Zenbat pertsona atxikiko zaizkio zerbitzuari udal bakoitzean?

Iruñean, 2006ko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

Galdera, Sarrigurenen osasun etxe bat eraikitzeari buruzkoa.


ERRETIRATUTAKO GALDERA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2006ko otsailaren 16an egindako bileran, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak Sarrigurenen osasun etxe bat eraikitzeari buruz aurkezturiko galdera erretiratu izanaren jakitun dagoela adierazi

zuen. Galdera hori 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

| | |
|---|---|
| HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA | IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA |
| Urtebete 43,95 euro | |
| Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 » | |
| Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 » | |